

**EUSKO JAURLARITZA ETA OGASUNEN 2013rako
AURREKONTUAK 823 MILIOI EUROTAN MURRIZTUKO DIRA**

Finantzen Euskal Kontseiluko akordioekiko ELAren balorazioa

2012ko urriak 25

Urriaren 23an Finantzen Euskal Kontseiluak egindako bileran, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru-Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak honakoa erabaki dute:

- Aurreikusten dute Foru-Ogasunek aurten 11.400 milioi euro bilduko dituztela, hots, duela urtebete uste izan zutena baino 725 milioi gutxiago; honen arabera egin ziren 2012rako aurrekontuak. Horrenbestez, ogasunek 2011n baino 80 milioi gutxiago bilduko dituztela espero dute, eta 2010ean baino 300 milioi gutxiago.
- 2013an 11.825 milioi euro bilduko dutela aurreikusten dute, aurten baino %3,7 gehiago. Hau da 2013ko aurrekontuak baldintzatzen dituen kopurua.

EAEko OGASUNEK BILDUTAKO DIRUA (milioi eurotan)

2010	2011	2012ko AURREIKUSPENA	2012KO AURREIKUSPEN EGUNERATUA	2013KO AURREIKUSPENA
11700	11480	12116	11400	11825

Beraz, honela Finantzen Euskal Kontseiluak datorren urterako Jaurlaritzaren eta Aldundien aurrekontuak de facto finkatu ditu, eta aurrekontu horiek zeharo murriztuko dira. Hain zuzen ere, 2013ko gastua 823 milioitan jaitsiko da 2012arekin alderatuz.

Zergatik esaten dugu hori? Azalpen erraza dauka: EAEko erakundearen gastua zenbatekoa den bi faktorearen arabera finkatzen da:

- Batetik, Madrilen erabakitako defizit publikorako ezarri den muga, BPGaren %0,7a 2013rako (2012ko BPGaren %1,5ekoaren aldean). Patxi Lopezen gobernuak ontzat eman du muga hau, eta horrenbestez, gastua 523 milioi euro txikiagoa izan beharko litzateke.
- Bestetik, 2013an espero diren diru-sarrerak (2012ko aurrekontuak egiteko kontuan izandakoak baino 300 milioi gutxiago).

ELAk ez du onartzen Finantzen Euskal Kontseiluaren erabakia (bertan EAJ, Bildu, PSE eta PPko ordezkariak izan ziren), ondorio hauek izango baititu:

- Administrazioen murrizte agendarekin jarraitzea; honek ekonomia errearen eta enpleguaren gainbehera eragiten du eta desberdintasun sozialak zein pobrezia areagotu.
- Egungo zerga-politikari eutsiko diote. Akordioa sinatzen duten erakundeek 2013rako egin duten diru-sarreraren aurreikuspenarekin baztertu egiten dute zerga-politika aldatzeko aukera (iruzurraren jazarpena eta PFEZean nahiz Sozietateen zergan sakoneko aldaketa aurrerakoiak). Egungo zerga-politika aldatuz gero bildutako dirua asko gehituko litzateke.
- Madrilen aurrekontu-politika mugatzeko hartutako erabakiei ez zaie aurre egiten; aurrekontuei buruzko ahalmena ordezkari instituzionalek defenditu beharreko zerbait da. Finantzen Kontseiluko kide diren erakundeetako agintari batek ere ez du esan Madrilen ezarritako defizit mugei muzin egingo dienik; hau eskumenekiko utzikeria larria da, eta murrizketa gehiago ekarriko du.

Opor fiskalen inguruan sorturiko polemika, Kontseiluan onarturiko aurrekontu erabakiek dituzten ondorio larriak ezkutatzeko kontakizuna dela uste du ELAk. Dena den, arrazoi hau dela eta ogasun bakoitzak bildurikoa aurretiaz ezagutzera ez ematea, eta Araba eta Bizkaiko Ogasunek diru hau banatu nahi ez izana, oso larria dela uste dugu.

ELAk zerga-politika zeharo alda dadila eskatzen du, azken urteetan erabaki diren erreformatan atzera egiteko eta iruzurrari taxuz jazartzeko. Halaber, erakunde guztietako

agintariei eskatzen die ez dezatela Madrilen erabakitako aurrekontu-mugarik, ez murrizketarik onartu.

Beste politika bat posible da. Iruzur fiskalaren aurka ez borrokatzearekin eta errenta altu eta kapital errenten zergen murrizketarekin onuratsen diren elite ekonomikoei aurre egiteko politika burutzeko borondate politikoa falta da.

